

# Argazki lehiaketa

## 2022



Ayuntamiento de Burlada  
Burlatako Udala



**Kultura eta Jaierako Patronatua**  
Bentetako ingurubidea, 1. 31600 Burlata  
T. 948 136 420 - cultura@burlada.es

## HAURRENTZAKO MODALITATEA

- 1** Burlatako lehen Hezkuntzako eta DBIko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendua. Lehiaketako parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere 3 obra aurkezten ahaliko ditu; lanek jatorrizkoak izan behar dute. Lehiaketatik kanpo geldituko dira edozein modalitatetan argitaratutako argazki, kartel, margo eta abarren plagioa diren lanak, erabatekoa edo zati batean izanik ere.
- 2** **Formatua.** Argazkiaren gutxieneko tamaina 20x30 cm izan da; obrak 40x50 cm-ko kartoi mehe zuri baten gainean muntatu behar dira.
- 3** **Gaia.** Burlata.
- 4** Edozein teknika erabil daiteke, bai zuri-beltezan bai koloretan.
- 5** **Aurkezpena. Epea:** ekainaren 10era arte Kultur Etxeko bulegoetan (Bentetako Ingurubidea 1), 08:00etatik 14:00etara. Egile-sinadurarik gabe aurkeztuko dira argazkiak, libreki aukeratutako goiburur batekin. Goiburu hori kartelaren atzealdean idatziko da, eta, gutun-azal itxi batean, egilearen datuak agertuko dira: izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, zer ikastetxetan ikasten ari den eta zer eskola-kurtsu egiten ari den. Halaber, haurrentzako modalitatean aurkezten dela adierazi beharko da. Lehiaketatik kanpo geldituko dira klausula horiek betetzen ez dituzten proposamenak.
- 6** **Sariak.** Sari bakarra: eskola-material sorta bat, 60€-ko balioa duena. Saria heldu den abuztuaren 5an eman da, 13:00etan, Burlatako osoko bilkuren aretoan, hain zuzen jaien programa ofiziala aurkezteko ekitaldiaren barnean. Saria egun horretan jasoko du irabazleak, edo, bestela, haren ordezkari gisa joaten den pertsonak –kasu horretan, aurretik abisatu beharko da–. Bestela, eman gabe geldituko da.
- 7** Kulturaren eta Festen Patronatuak aurkeztutako lanekin erakusketa bat egiteko eskubidea gordetzen du eta hauek urritik aurrera jaso ahaliko dira.
- 8** **Epaimahaia** epaimahai kalifikatzailean, Kulturaren eta Jaien Patronatuko lehendakaria edo hark izendatutako pertsona ariko da buru, eta argazkilaritzan adituak diren beste bi pertsonak ere bai. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe geldituko da.

## HELDUENTZAKO MODALITATEA

- 1** 14 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte, betiere argazkilaritzaren arloko profesionalak ez badira, eta gehienez ere 3 lan aurkez daitezke; lanek jatorrizkoak izan behar dute. Lehiaketatik kanpo geldituko dira edozein modalitatetan argitaratutako argazki, kartel, margo eta abarren plagioa diren lanak, erabatekoa edo zati batean izanik ere.
- 2** **Formatua.** Argazkiaren gutxieneko tamaina 20x30 cm izan da; obrak 40x50 cm-ko kartoi mehe zuri baten gainean muntatu behar dira.
- 3** **Gaia.** Burlata.
- 4** Edozein teknika erabil daiteke, bai zuri-beltezan bai koloretan.
- 5** **Aurkezpena. Epea:** ekainaren 10era arte, ostirala, Kultur Etxeko bulegoetan (Bentetako Ingurubidea 1), 8:00etatik 14:00etara. Era berean, helbide horretara bidal daitezke fakturatuak edo posta bidez. Kulturaren eta Jaien Patronatuak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko posta bidez bidalita lanetan gerta litezkeen kalte edo galerengatik, ez eta lehiaketa bukatuta lanak itzultzeaz ere. Egile-sinadurarik gabe aurkeztuko dira argazkiak, libreki aukeratutako izenburu batekin. Izenburu hori kartelaren atzealdean idatziko da, eta gutun-azal itxi batean, egilearen datuak agertuko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa eta NANaren fotokopia. Lehiaketatik kanpo geldituko dira klausula horiek betetzen ez dituzten proposamenak.
- 6** **Sariak.** Lehenengo saria: 600€.  
Bigarren saria: 200€.  
Saria heldu den abuztuaren 14an eman da, 11:00etan, Burlatako osoko bilkuren aretoan. Saria egun horretan jaku du irabazleak, edo, bestela, haren ordezkari gisa joaten den pertsonak –kasu horretan, aurretik abisatu beharko da–. Bestela, eman gabe geldituko da.
- 7** **Epaimahaia** epaimahai kalifikatzailean, Kulturaren eta Jaien Patronatuko lehendakari aedo hark izendatutako pertsona ariko da buru, eta argazkilaritzan adituak diren beste bi pertsonak ere bai. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe geldituko da.
- 8** Saritutako lanak Kulturaren eta Jaien Udai Patronatuaren jabetza izatera pasatuko dira, eta hark bere gain hartzen ditu haien gaineko eskubide guztiak, eta, horrenbestez, obrak erreproduzitzeko baimeana du.
- 9** Kulturaren eta Festen Patronatuak aurkeztutako lanekin erakusketa bat egiteko egiteko eskubidea gordetzen du eta hauek urritik aurrera jaso ahaliko dira.
- 10** Erakusketa bukatuta, lehiaketa parte hartzen duten pertsonak urtea bukatu arteko epea izan daiteke argazkiak jasotzeko; salbuespena dira saritutako lanak, Kultura eta Jaien Patronatuaren jabetzakoak izatera pasako baitira, eta, hortaz, ulertuko da egileek uko egiten diérela haiei eta galtzen dituztela erreklamazioa egin edo kalte-ordainduko eskatzeko eskubide guztiak. Lehiaketa parte hartzen dutenek ordainduko ditze argazkien bidalketa-gastuak edo itzulketagastuak.
- 11** Halaber, argazkiak Burlatako Udalaren webgunean erakusten ahaliko dira denbora mugagabean eta irabazi-asmorik gabe, betiere egilearen izena adierazita.
- 12** Lehiaketako parte-hartzaileek oso-ori onartzen dituzte oinarriok, baita Epaimahaiaren erabaki apelaiazina ere.